



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko azaroaren 14a

137. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Ekialdeko Pirinioetako egoera sozioekonomikoa aztertzeke ponentziaren txostena. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

—Deialdia, oposizio bidez Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoretzako teknikari izateko bost lanpostu huts bete daitezzen (horietako baterako euskaraz jakin behar da). Onartu eta baztertu diren izangaien behin betiko zerrenda (17. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

—1/2018 Foru Lege Dekretua, urriaren 24koa, zeinaren bidez onesten baitira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen arloko neurri batzuk. Osoko Bilkurak baliozkotua (19. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko azaroaren 8an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Aipatu foru legea, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 20.2 eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren 153. artikuluekin bat, gehiengo osoz onetsi da, proiektu osoari buruzko azken bozketan

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2018ko azaroaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena

HITZAURREA

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 160.1 d) artikuluan hitzez hitz esaten denez, auto hauek salbuesirik egonen dira trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergatik: "Baliourrituen edo bereziki egokituriko autoak, baldin behar den baimenaren jabe diren baliourrituenak badira eta haiek bakarrik erabiltzekoak, 12 zaldi fiskaletik beheitikoak badira. Salbuespenaren muga baliourritu bakoitzarentzat ibilgailu bat izanen da".

Alde horretatik, Nafarroako arau indarduna salbuespen hori arautzen duten beste arau berriago batzuk baino nabarmen murriztaileagoa da; esate baterako, lurralde erkidean aplikatzen dena baino murriztaileagoa –martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretua, Toki-ogasanak arautzen dituen Legearen testu bateratua onartzen duena–.

Horri dagokionez, Nafarroako Arartekoak berak ere behin baino gehiagotan iradoki du Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 160.1 d) artikuluan ezartzen den trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren salbuespena aldatua izatea bultzatu beharko litzatekeela, halako moduan non Nafarroan bizi diren pertsona desgaituek ez baitute jasoko Estatuko beste lurralde batzuetan ematen dena baino tratu okerragorik.

Ikus daitekeenez, Nafarroako legedia zaharkiturik gelditu da, eta beharrezkoa da, hainbat arrazoi direla medio, hori aldatzea:

– Foru legean erabilitako terminologia bera; hartara, "baliourritu" terminoa erabili ordez "pertsona desgaitu" erabili beharko litzateke, Mendetasun-egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala eta zainketa sustatzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen zortzigarren xedapen gehigarriarekin eta Pertsona desgaituen eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioarekin bat.

– Baliteke, egia da, hamabi zaldi fiskaleko muga ez etortzea guztiz bat automobil-merkatuaren errealitatearekin eta desgaitasuna duten pertsonen beharrezanekin; izan ere, pertsona horiek, gurpil-aulkiak eraman behar izateagatik edo, are, beren zaletasunengatik, baliteke ibilgailu handi samarrak behar izatea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legean salbuespen fiskala aplikatzeko muga gisa ezartzen den baino potentzia handiagokoak.

– Desgaitasuna duten pertsonak ez dute beti behar bereziki egokitutako ibilgailu bat, baina behar izaten dute, bai, ibilgailu bat.

– Bereziki egokitutako ibilgailuak ez daude desgaitasuna duen pertsonaren izenean soilik, ezpada pertsona hori batetik bestera eramateaz arduratzen diren beste titular batzuen izenean ere.

– Orobat uste dugu zerga-salbuespen hori halaber eduki beharko luketela desgaitasuna duten pertsonak garraiatzeaz arduratzen diren irabazi asmorik gabeko erakundeen izenean matrikulatutako ibilgailuek.

Autonomia bermatzeko gakoetako bat da desgaitasuna duten pertsonen ahal den guztian erraztea arreta-zerbitzuetarako irispidea, eta haien mugikortasuna eta gizarteratzea erraztea; horretarako, administrazio publikoek beharrezkoak diren mekanismo guztiak jarri behar dituzte, desgaitasuna duten pertsonen diskriminazioaren bat dakarkien oztopo oro kentzeko.

Artikulu bakarra. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzea.

2019ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen honako agindu hauek honela idatzita geratuko dira:

1. 160.1. artikuluari c') letra berria gehitzen zaio:

“c') Irabazi asmorik gabeko erakundeen izenean matrikulatutako ibilgailuak, desgaitasuna duten pertsonak garraiatzekoak”.

2. 160.1.d) artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“d) Bereziki egokitutako ibilgailuen titularrei. Orobat salbuetsita egonen dira % 33 edo gehiago-

ko desgaitasun-gradua duten pertsonen izenean matrikulatutako ibilgailuak, honako inguruabar hauetakoren bat gertatzen denean:

1. Mugikortasun urritua izatea, Desgaitasun gradua aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedurari buruzko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuko II. eranskinean jasotakoarekin bat.

2. Defizit kognitiboa, intelektuala edo nahas-mendu mentala izatea.

3. Begirik onenean 0,1eko ikusmen-zolitasuna edo hori baino txikiagoa izatea zuzenketarekin, edo 10 gradura edo gutxiagora murriztutako ikuseremua izatea.

4. Adingabea izatea.

Salbuespena 12 zaldi fiskal edo gutxiagoko ibilgailuetarako baino ez da izanen, eta pertsona bakoitzeko ibilgailu batekoa gehienez”.

Azken xedapenetan lehenengoa. Araugintzarako gaikuntza.

Nafarroako Gobernuak foru lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emanen ditu.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek 2019ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ostean, legean berean aurreikusitako ondorioekin.

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Ekialdeko Pirinioetako egoera sozioekonomikoa aztertzeke ponentziaren txostena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikularekin bat, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuraren 2018ko azaroaren 8ko Erabakia, zeinaren bidez Ekialdeko Pirinioetako egoera sozioekonomikoa aztertzeke ponentziaren txostena onesten baita, eta aipatu txostena ere.

Iruñean, 2018ko azaroaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Ekialdeko Pirinioei buruzko ponentziaren txostena

- I. Sarrera.
- II. PONENTZIAREN HELBURUA
- III. Metodologia, jarduera eta kronologia
- IV. Diagnostiko baterako gakoak.
- V. ESKAEREN, PROPOSAMENEN ETA ERANTZUNEN ZERREDA.
- VI.00 KONKLUSIOAK.
- VII. Gomendioak.
- VIII. Dokumentazioa.

I. SARRERA

Nafarroako Pirinioek, mila kilometro koadro inguruko azalerarekin, Nafarroako azaleraren ehuneko hamar hartzen dute, eta erroldatutako biztanleriaren ehuneko bat daukate, nahiz eta egiazko biztanleria ia erdia baizik ez izan. Horrek esan nahi du kilometro koadroko zazpi biztanle daudela; Nafarroako batez bestekoa, ordea, 64,2koa da. Datu hotz eta aldi berean kezkarri horien aurrean, lurralde honen etorkizun hurbilerako batere itxaropentsuak ez diren populazio-joera batzuk aurkitzen ditugu. Haurren matrikulazioetan

etengabeko galera bat gertatzen ari da, zalantza oso handiko etorkizuna islatzen duena, eta aldi berean biztanle helduak oso zaharrak dira; bestetik, herritarren beharrezan batzuk ez dira asetzen Nafarroako beste eremu batzuetako antzeko baldintzetan. Horrek berekin dakar eskualdea biztanleak pixkanaka galtzen joatea, nagusiki Iruñera joaten direlako hobeki ordaindutako lan segurua go baten bila, prestakuntza hobearen bila, prestazio sozial eta osasuneko hobe batzuen bila...

Egoera horren aurrean, duela zenbait urtetatik Pirinioetako eskualde bizi baten alde lanean aritu diren elkarteek sustatutako ekimen bat sortu zen, "5 minutu Nafarroako Ekialdeko Pirinioetarako" leloaren pean, eta milaka sinaduraren babesa lortu zuen. Ekimen horren bidez, Nafarroako Parlamentuari proposatu zitzaion denbora bat harrezala Nafarroako Ekialdeko Pirinioei buruz gogoeta egiteko guztien onerako konponbideak bilatzeko. Halaber, eta era berean Ekialdeko Pirinioen eremu geografikoaren barruan, Pirinioetako Mahaia sortu da, zeinak batera biltzen eta koordinatzen baititu Erronkari, Zaraitzu, Aezkoa, Erroibar, Artzi, Nabaskoze, Oroz-Betelu, Orreaga, Luzaide eta Aurizko toki entitateak. Mahaiak, bere antolamendu-eskemaren barruan, tokia ematen die eskualdeko erakunde sozialei eta herritarren erakundeek. Eta, era berean, eskualdearen garapenari eta bizitasunari buruzko kezka eta interesa bertako biztanleetako askok partekatzen dituzte, nahiz eta zuzenean parte ez hartu aipatu berri ditugun foro edo espazioetan.

Lehenengo aldiz, guztientzako espazio eta lanildo batzuk asmatu eta aktibatzen dira, kolektibo eta entitate sozialen –funtsean, Bizirik Gaude, Pirinioan Lan eta Bizi eta Txantxalan elkarteek–, enpresa-entitateen, erakundeen eta entitate politikoekin. Plantea daitekeen edozein konponbidek ukitutako biztanleriaren onespina eta konpromisoa behar ditu arrakasta izateko aukera handiagoa izateko; hori dela eta, mugit

mendu sozial eta instituzional horrek guztiak estaldura eta sostengua ematen dizkio egindako lanari.

Ekialdeko Pirinioetan biztanleak galtzen ari dira, atzeraezinak diren ondorio batzuekin; batez ere, kultur ondareari, tradizioei, ondare historikoari, paisaiari eta naturari dagokienez. Nafarroak ezin du halakorik onartu, eta horren kostu sozialak berekin ekarriko luke gure sustraien funtsezko zati bat galtzea, gure nortasun politikoaren ernamuina eta ehunka edo are milaka urtetako usadio eta ohituren babeslekua izan dena. Bestetik, horren kostu ekonomikoa –ingurumenaren, paisaiaren eta naturaren balioa modu egokian mantendu ahal izatekoa– bidera ezina izanen litzateke foru erkidegoaren diru-funtsentzat.

Gizartean gertatzen ari diren aldaketek, balio sozial eta ingurumen-balio berriekin, bizi-estilo berriekin... etorkizuneko aukera bat ematen diote lurralde honi, eta probestu egin behar dugu aukera hori, haren jatorrasuna, bizi-kalitatea eta nortasuna balioan jartzeko. Aukera hori heldu da hain kezkarria den egoera horren aitortzen sozial eta politikoaren eskutik, eta, era berean, guztien artean errealitate hori birbideratzeko beharrezkoak diren ahaleginak egiteko konpromisotik.

II. PONENTZIAREN HELBURUA

.- Nafarroako Parlamentuak agindu zuen bezala, ponentzia honen helburua da “Nafarroako Ekialdeko Pirinioetako Ibarren egoera sozioekonomikoa aztertzea”. Horixe da, beraz, PONENTZIAREN helburua, hitzez hitz. Enuntziatuan jasota dagoen eta formalki beharrezkoa den helburu horretaz gainera, PONENTZIAK egindako bilkuretan zehar entzundakoa eta jasotakoa ikusita, honako beste helburu hauek ere aipa daitezke:

.- Ekialdeko Pirinioetako egoera eta garapena agenda politikoan eta erakundeen, Parlamentuaren eta Gobernu-ekintzaren agendetan sartzea, modu iraunkorren.

.- Lankidetzarako eta elkarrekiko trukerako esparru bat sortzea eragile instituzionalen eta sozialen artean, bai Ekialdeko Pirinioetako esparruan, bai Foru Komunitatearen esparruan ere.

.- Behar bezain argia eta zehatza den txosten bat sortzea, tresna eta gidaliburu gisa balioko duena Parlamentuaren lanerako eta Gobernuaren ekintzarako.

.- Dokumentu batean biltzea Ekialdeko Pirinioetatik egindako eskakizunak, bai eta Gobernuak eskakizun horietarako planteatutako neurriak ere.

.- Parlamentuaren bultzada eta haren konpromiso politikoa Ekialdeko Pirinioetako egoera kritikoari erantzun egokia emanen dion politika bat bultzatzeko.

.- Nafarroako Gobernuari bultzada ematea eta hari dei egitea bere politiken plangintzan, diseinuan, lanketan eta ezarpenean Pirinioetako egoera kritikoa kontuan har dezan eta horren arabera joka dezan.

III. METODOLOGIA, JARDUERA ETA KRONOLOGIA

Nafarroako Parlamentuak “Nafarroako Ekialdeko Pirinioetako Ibarren egoera sozioekonomikoa aztertzeko” sortu duen PONENTZIAK bertatik bertara egindako hainbat bilkura edo bileraren bitartez lan egin du, eta horien osagarri landu beharreko gaiari buruzko dokumentazioa elkarrekin trukatu eta jaso da.

Bilkurek eta bilerek bi fase izan dituzte: lehenengo fasean, Parlamentuak horretarako sortutako ponentzia hainbat aldiz bildu da Ekialdeko Pirinioetako solaskideekin, bai Parlamentuaren egoitzan bertan, bai Pirinioetako hainbat herritan. Bilkura horietan bisita programatu batzuk egin dira eskualdeko ezaugarri edo jarduera jakin batzuk ezagutzeko.

Bigarren fasean, Parlamentuko ponentziako kideak Nafarroako Gobernuaren ordezkari edo solaskideekin bildu dira, Pirinioetatik jasotako informazioa eta proposamenak transmititze aldera, bai eta Gobernuak planteatutako guztiari buruz emandako erantzunak eta dauzkan ekimenak ezagutzeko ere. Bilera horietan, Nafarroako Gobernuak kontseilariak, departamentuetako zuzendari nagusiak, enpresa publikoetako kudeatzaileak edo hainbat zerbitzu eta ataletako zuzendari edo teknikariak egon dira.

Gobernuarekiko solas horretan, idatziz igorri eta jaso diren dokumentazio, erreklamazio eta erantzunak elkarrekin trukatu dira zenbaitetan.

Bilkura eta dokumentu horietan eta informazio-, iritzi- eta irizpide-truke horietan guztietan oinarrituta, Pirinioetako PONENTZIAK, hainbat bilkuratan eta hasierako zirriborro bat landuz, dokumentu hau sortu du; bertan, jarduerari buruzko sarrera bat edo deskribapen bat egiten duten atalez gainera, ponentziaren funtsezko ekarpena jaso da; hau da, aurrerago azalduko diren konklusio eta gomendioak.

Bilkurei eta haien kronologiari dagokienez, ondoren zehatz azalduko dugu nolako prozesua jarraitu dugun:

PONENTZIAK EGINDAKO BILKURAK

Ponentziaren aurretiko bilkura	
2017-03-18	
Ustaizeko jardunaldi-topaketa	
Gaia	<p>.- Pirinioan Lan eta Bizi eta Bizirik Gaude kolektiboen aurkezpena, eta Change.org delakoan "5 minutu Pirinioetarako" sinadura -bilketarako kanpainarako arrazoien azalpena.</p> <p>.- Pirinioetako hainbat sektore ekonomiko eta sozialen ordezkari diren 12 pertsonaren azalpena: beren ikuspegi partikular eta profesionaletik, Pirinioetarako bost minutu horien beharraren aldeko argudioak eman zituzten.</p>
Solaskideak	Pirinioetako elkarte eta kolektiboak eta 12 sektore ekonomiko eta sozialetako ordezkariak.
Parlamentuko ordezkariak	Kasu horretan, eta bilera hori Ponentzia sortu baino lehen egin zenez, Parlamentuko ordezkari gisa Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordeko kideak egon ziren.

1. 2. eta 3. bilkurak	
2017-06-07, 2017-06-27 eta 2017-09-12	
Parlamentuko ponentziaren bilkura itxiak	
Gaia	Ponentzia eratzea, haren funtzionamendu -arauak onestea eta lanerako plan eta egutegi bat onestea.

4. bilkura.	
2017-10-04	
Bisita Erronkari Ibarrera	
Gaia	Ekialdeko Pirinioetako egungo egoeraren azalpena eta biztanle -galeraren arazoari buruzko azalpena. Bisita Erronkari Ibarrera eta Burgiko industrialdera.
Solaskideak	Pirinioetako Mahaia, Pirinioetako elkarteak eta Pirinioetako bizilagunak.

5. bilkura.	
2017-10-09	
Gaia	Hezkuntzaren egoera Nafarroako Ekialdeko Pirinioetako ibarretan.
Solaskideak	Mikel Aoiz, Marina Zubiri, Ainhoa Medina eta Susana Lusar. Pirinioetako eskoletako irakasleak eta Pirinioetako Mahaia hezkuntzaren arlorako sortutako taldeko kideak.

6. bilkura.	
2017-10-23	
Gaia	Etxebizitzaren, garraioaren eta azpiegituren egoera Nafarroako Ekialdeko Pirinioetako ibarretan.
Solaskideak	Ana Sagardoi, Joseba Martinez (Pirinioetako Mahaiko kideak), Carlos Múgica (Nasuvinsako ordezkaria), Ana Jesús Almirantearena eta Maitane Villanueva (Erroibarko arkitektoak).

7. bilkura.	
2017-10-30	
Gaia	Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren egoera Nafarroako Ekialdeko Pirinioetako ibarretan.
Solaskideak	Aitor Garmendia (Erronkariko alkatea), Ignacio Sanz (Pirinioetako Mahaiko ordezkaria), Gonzalo Palacios, Patxi Enkaje (eskualdeko abeltzainak), eta Igor Cruchaga.

8. bilkura.	
2017-11-06	
Gaia	Osasunaren arloaren egoera Nafarroako Ekialdeko Pirinioetako ibarretan.
Solaskideak	Pili Montero, Amparo Viñuales, Marta Moler, Maddi Mandazen, Lourdes Iturri, Lourdes Zoco (osasun zerbitzuetako eta gizarte zerbitzuetako langileak) eta Carlos Bueno (Pirinioetako Mahaiko ordezkaria).

9. bilkura.	
2017-11-13	
Gaia	Turismoaren egoera Nafarroako Ekialdeko Pirinioetako ibarretan.
Solaskideak	Mikel Madorran, Alicia Mendibe, Angel Mari Loperena, Javier Carlosena (turismoaren hainbat arlotan lan egiten duten pertsonak) eta Jesús Mari Barace (Pirinioetako Mahaiko ordezkaria).

10. bilkura.	
2018-01-15	
Bisita Erroibarko Etxera (Lintzoain) eta Aezkoako Batzarre Nagusiaren Etxera.	
Gaia	Enplegua, industria, landa garapena, ekintzaileen lana, Cederna -Garalur eta Nafarroako Ekialdeko Pirinioetako Ibarren ingurumena eta basozaintza.
Solaskideak	Joseba Martinez, Daniel Irigoien (Pirinioetako Mahaia), Mikel del Río (garapenerako taldeko eskualdeko parte -hartzailea), Ibon Mimentza (Cederna -Garalurreko kudeatzailea), Iban Lakidain (eskualdean lan egiten duen mendietako ingeniaria), Enrike Garralda (Erroko alkatea), Silvia Erlanz, Luis Zamarro (basozaintzaren eta ingurumenaren arloko taldeko kideak).

11. bilkura.	
2018-01-29	
Bisita Nabaskozera eta Zaraitzu Ibarrera.	
Gaia	Berdintasuna, kultura, ondarea eta euskara Nafarroako Ekialdeko Pirinioetako ibarretan.
Solaskideak	Elena Calvo (Burgiko alkatea), Izaskun Zabalza, Garazi Iribarren (euskara zerbitzuetako ordezkariak) eta Ana Sagardoi (Pirinioetako Mahaiko ordezkaria).

12. bilkura.	
2018-03-13	
Hezkuntza Departamentua.	
Gaia	Pirinioetako solaskideek egindako eskaerei eta eskakizunei Departamentuak emandako erantzuna eta Departamentuaren ekimen propioak.
Solaskideak	Maria Solana (kontseilaria) y Roberto Perez (Hezkuntzako zuzendari nagusia).

13. bilkura.	
2018-03-13	
Osasun Departamentua.	
Gaia	Pirinioetako solaskideek egindako eskaerei eta eskakizunei Departamentuak emandako erantzuna eta Departamentuaren ekimen propioak.
Solaskideak	Fernando Dominguez (kontseilaria) eta Luis Gabilondo (Osasuneko zuzendari nagusia).

14. bilkura.	
2018-03-22	
Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentua.	
Gaia	Pirinioetako solaskideek egindako eskaerei eta eskakizunei Departamentuak emandako erantzuna eta Departamentuaren ekimen propioak.
Solaskideak	Isabel Elizalde (kontseilaria), Ignacio Gil (Landa Garapeneko zuzendari nagusia), Izaskun Abril (kabineteburua), Fermin Olabe (Ingurumen Zerbitzuko zuzendaria) eta Juanma Intxaurraundieta (INTIAko zuzendari kudeatzailea).

15. bilkura.	
2018-03-22	
Garapen Ekonomikorako Departamentua	
Gaia	Pirinioetako solaskideek egindako eskaerei eta eskakizunei Departamentuak emandako erantzuna eta Departamentuaren ekimen propioak.
Solaskideak	Manu Aierdi (kontseilaria).

16. bilkura.	
2018-04-16	
Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Justizia eta Barne Departamentua.	
Gaia	Banda zabalerako planaren garapena
Solaskideak	Mari Jose Beaumont (kontseilaria), Miguel Sagúes (Informatikako eta Telekomunikazio zuzendari nagusia), Iñaki Pinillos (Nasertic -eko zuzendaria kudeatzailea) eta Jesús Izal Piñas (Nasertic-eko Telekomunikazioetako eta Azpiegituretako zuzendaria).

17. bilkura.	
2018-05-07	
Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentua.	
Gaia	Politika fiskaleko eta malgutasuneko neurriak.
Solaskideak	Luis Esain (Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzailea) eta María Corpus Urroz Mutuberria (Administrazio Ataleko burua).

18. bilkura.	
2018-05-07	
INTIA eta Elikagaien Segurtasunaren Zerbitzua.	
Gaia	Osasuneko araudia aplikatzeko irizpideak eta malgutasuna; zuzeneko salmenta.
Solaskideak	Juanma Intxaurraundieta (Intiako zuzendari kudeatzailea), Garbiñe Elizain (Intiako teknikaria), Francisco Javier Aldaz (Elikagaien Segurtasunaren eta Ingurumen Osasunaren Zerbitzuko burua) eta Raul Gonzalez (Elikagaien Segurtasunaren Ataleko burua).

19. bilkura.	
2018-05-07	
NASUVINSA eta LURSAREA.	
Gaia	Pirinioetako Plana lantzea eta hartarako irizpideak, etxebizitza.
Solaskideak	Jose Mari Aierdi (Nasuvinsako zuzendari kudeatzailea) eta Arantxa Arregi (Lursarea).

20. eta 21. bilkurak	
2018-05-14, 2018-06-11	
Parlamentuko ponentziaren bilkura itxiak.	
Gaia	Ponentziaren txostenaren egitura eta edukia zehaztea eta Ponentziaren konklusio eta gomendioak adosteko analisia.

22. bilkura.	
2018-06-25	
Ezkarozeko bilkura Pirinioetako Mahaiarekin.	
Gaia	Pirinioetako Mahaiaren aurkezpena eta Ponentziak egindako txostenaren hasierako kontrastea.
Solaskideak	Pirinioetako Mahaiko ordezkariak.

IV. DIAGNOSTIKO BATERAKO GAKOAK

Ekialdeko Pirinioetako egoerari buruzko erabateko diagnostiko bat egitea oso ere zaila da, eta toki handia eskatzen du. Irizpen hau ez da deskribapen erabateko eta exhaustiboa egiteko tokia. Dokumentu ugari daude diagnostiko hau osa dezaketenak ikuspegi orokor edo zehatzago batekin eta xehetasunez. Atal honetan, laburbildurik eta modu ez-exhaustiboan, berreskuratu eta enuntziatuko dira, alderdi garrantzitsu batzuk nabarmentzeko xedez, Pirinioetako egoeraren larritasuna, bai eta berezitasuna ere, begi-kolpe batez harrapatzeko gakoak.

– Biztanleriaren ezaugarriak eta bilakaera:

.- Ekialdeko Pirinioetan biztanleriaren galera azkar bat gertatzen ari da: 1.900ean 18.000 biztanle inguru zituen. 2017an, zenbateko ofiziala 7.000 biztanlekoa da, baina datu erreala 3.600 biztanle ingurukoa da.

.- Pirinioak dira Nafarroan biztanle-galerako indize handiena duen tokia. NUKFk egindako azterlanaren arabera, Pirinioetakoa izan zen 1999tik 2009ra biztanleak galdu zituen Nafarroako eskualde bakarra (% 6ko galera), eta 2007 eta 2017 bitartean biztanle-galeraren buru-buruan egon da.

.- Datu adierazgarri eta argigarri moduan, esan beharra daukagu Zaraitzu Ibarrean 2014an jaiotza bat eta 20 heriotza izan zirela. Azken hiru urteetako batez bestekoa hiru jaiotzakoa izan da.

.- Pirinioetako herrietako biztanleen batez besteko adina oso altua da. Eskualdeak biztanleria zahartua dauka. Gehiegizko zahartzearen gradua (80 urtetik gorako pertsonak) oso altua da, batez ere emakumeen artean: une honetan % 12tik gorakoa da.

.- Pirinioetako eskualdea, gainera, Nafarroan gazte-portzentaje txikiena duen eskualdea da, eta bistan da atzeranzko dinamika batean dagoela. Nafarroako Gobernuak egindako "Nafarroako Pirinioetako eskualdeko azterlan sozioekonomikoa eta gazteen egoerari buruzkoa" izeneko azterlanean, honako hau ageri da: "biztanle gazteak erdira jaitsi dira ia aztertutako azken bi hamarkadetan. 1998an, biztanle gazteak 1.216 ziren; kopuru hori pixkanaka jaisten joan zen, eta 2007an 867 gazte izatetik gaur egun erregistratutako 605 gazte izatera iritsi gara".

.- Biztanleria oso barreiatuta dago: bata bestetik urrun dauden herri ugarian oso barreiatuta dago Pirinioetako biztanleria eskasa.

.- Nafarroako biztanleriaren batez bestekoa 60 biztanle/km²-koa da. Pirinioetako ibarretan, 4 biztanle/km²-koa da.

.- 1990ean, 13 eskola zeuden Ekialdeko Pirinioetan. 2017an, 7 baizik ez ziren. 1850ean, herri bakarra ere ez zegoen eskola-umerik gabe: 1982an, berriz, 3 herri zeuden; 2017an, 15 daude.

– Ezaugarri geografiko eta orografikoak eta klimarenak zailtasun erantsi bat dira Pirinioen garapenerako, nahiz eta kontuan izan elurra, batzuetan, elementu positiboa dela kirolaren eta ekonomiaren arloko zenbait jardueratarako.

– Ekialdeko Pirinioetako industria-ehundura oso eskasa da. Une hauetan, Pirinioetako enpresarik handiena Nafarroako Gobernua da.

– Negozio txikietan belaunaldien erreleborako zailtasun larriak daude. Enpresen erakarmen-indarra eskasa da eta egungo enpresa-ehunduraren biziraupena zalantzan dago.

– Eskualdearen garapen ekonomikorako behar diren azpiegituren eskasia edo behin-behinekotasun egoera (garraioa, telekomunikazioak, sare elektrikoa...).

– Nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerak garatzeko eta jarduera horietan belaunaldien arteko erreleborako zailtasunak.

– Pirinioetako etxebizitza tradizionalaren tipologia egungo bizimoduaren erabileren, beharrezan eta ezaugarrien arabera egokitzeko zailtasunak; bestetik, alokairuaren eta sustapen publikoko etxebizitzaren eskaintzaren eskasia.

– Pirinioetako biztanleek joan-etorri ugari eta luzeak egin behar izaten dituzte, batez ere Iruñeira, osasun- eta hezkuntza-zerbitzuetara, erosketak egitera, aisiako jardueretara eta abarretara joateko.

– Zerbitzuen defizita eta ingurune murriztaileak bizi-proiektuetarako.

V. ESKAKIZUNEN, PROPOSAMENEN ETA ERANTZUNEN ZERRENDA

Eskakizunen, proposamenen eta erantzunen zerrenda txostenarekin batera doan eranskin batean jasota dago, Nafarroako Gobernu departamentuen arabera sailkatuta (LI. eranskina).

VI. KONKLUSIOAK

Sarrera

Pirinioetako Ibarretan bizi diren biztanleen egungo egoeran kezka ugari daude. Aurreko ataletan aipatu den bezala, kezka dute beren etorkizuna dela eta.

Konklusio hauetan, Nafarroako Parlamentuan ordezkatuta gauden talde politikook, ahaleginak egin ditugu batera biltzeko lan-bilkuretan jaso ditugun eskakizunak, kontsultatu ditugun organismo publikoek emandako erantzunak eta guk geuk egin ditugun ekarpenak, honako itxaropen hone-

kin: elkarrekin egin dugun lanak Pirinioetako Ibarrek bizirik jarraitzeko balio izatea.

Eskakizun horiek toki entitateetatik eta elkartegintzaren mugimendutik iritsi zaizkigu, elkarrekin lan egiten ari baitira Pirinioak bizitzeko toki erakargarri bat izan daitezen bizitzeko, eta etorkizunerako perspektiba interesgarri batekin. Eskakizun horietan Foru Administrazioako departamentu guztiak daude ukituta.

Irizpenaren kapitulu honetan, lehenengo ondorio batzuk atera nahi ditugu, ponentziak hartzen duen lurralde osoan eta jarduketak eskatzen diren sektore guztietan eragina dutenak.

Egoeraren ezaugarriak eta hura leheneratzeko prestasuna

– Nafarroako Ekialdeko Pirinioetako egoera sozioekonomikoa aztertzeko Ponentzian lortu dugun diagnostikoak erakusten du eskualde horren egoera, arrazoi ugari tartean direla, oso zailtzat kalifikatu daitekeela, are egoera larritzat ere, eta esan daiteke haren etorkizuna oso zalantzarikoa dela. Egoera hori aspalditik heldu da, baina atzerazinezko puntu batera iristen ari da; hori dela eta, gogoeta bat egin beharra dago, eta, batez ere, berehala jardun beharra dago.

– Era berean, baieztatu daiteke ezen, une honetan, prestasun oso argi eta tinkoa dagoela Pirinioetako gizarte-eragileen eta erakundeetako eragileen aldetik egoera leheneratzeko eta horretarako behar den ahalegina egiteko. Tokiko eragileek ahalegin hori egiteko duten prestasunarekin batera, ahalegin politiko eta instituzionala behar da, instantzia eta erakunde orokorragoen eskutik; besteak beste, Nafarroako Parlamentuaren eta Nafarroako Gobernuaren eskutik.

Larritasun diagnostikoaren elementu deskribatzaileak

– Egoeraren zailtasuna eta larritasuna hainbat faktore eta adierazletatik heldu da: biztanleen galea oso azkarra; biztanleak oso barreiatuta egotea; biztanleen zahartzea; garapen ekonomikorako azpiegiturak falta izatea; nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerak garatzeko eta jarduera horietan belaunaldi-erreleborako zailtasunak; eremuan aplikatutako politika eta irizpideak, zeinen bidez antzeko tratua ematen baitzaie biztanle gutxi dituzten biztanle-gune eta udalerriei eta dentsitate handiagoa eta hiri-izaera nabarmenagoa duten eremuei. Horiek guztiak egoeraren diagnostikoari buruzko dokumentu honen atalean aipatzen dira, labur bada ere. Egoeraren larritasuna adierazten digu horrek.

Ekialdeko Pirinioetako egoeraren berezitasuna

– Ekialdeko Pirinioetako egoerak eskualde hori biztanle-galerako arazo larri eta agerikoak nozitzen dituzten Nafarroako beste eskualde edo biztanle-gune batzuetatik bereizten dituen ezaugarri batzuk badauzka. Ekialdeko Pirinioetako egoerak antzeko arazoak dauzkaten Nafarroako beste eremu batzuen aldean duen berezitasuna hainbat faktoretatik heldu da; funtsean, biztanle-gune garrantzitsuekiko eta era guztietako zerbitzuetarako distantziak, eremuaren beraren orografia, zeinak komunikazioak eta azpiegituren garapenak zailtzen baititu; eta biztanleen bizi-baldintzak gogorrago egiten dituzten beste faktore batzuk, klima edo biztanleriaren zahartzea kasu. Hori guztia gehigarri bat da, biztanle-galerako indize handiak dituzten lurraldeetan eragina izan ohi duten beste batzuei erreparatuz gero.

– Pirinioetako egoera benetan zail eta larria da, eta egiazki berariazkoa eta bestelakoa da, biztanleak galtzen dituzten beste eskualde batzuekin alderatuta. Hain zaila eta hain larria da, non planteatzen baita berariazko politikak eta ekintzak behar dituela, hain zuzen ere eskualde horretarako pentsatuak eta bertan gauzatuak, diskriminazio positiboko irizpide eta ikuspegi batekin. Berariazko politika horiek haztatu eta neurtu beharko dira, zalantzarik gabe, egoera halaber zaila bizi duten beste eskualde batzuetan konparaziozko bidegabekeriaren sentipena eragin ez dezaten. Halere, egoerari buruzko datuak eta deskribapena, herri horien egoera oraindik ere larriago bihurtzen duten faktorek, eta lurralde zabal horrek baliabide natural eta ingurumenekoen osotasunean, abeltzaintzan, basozaintzan, paisaian, kulturaren, turismoan eta abarretan daukan garrantzi estrategiko handia direla eta, justifikatuta dago berariazko politika, neurri eta jarduketak planteatzea eskualderako, bai araugintzari dagokionez, bai gobernu-ekintzaren ikuspuntutik ere.

Foru Komunitatearen interes orokorreko gaia

– Pirinioetako eskualdearen biziraupena eta bizi-indarra Foru Komunitate osoan eragina duen eta haren interesekoa den gai bat da, eta haren biztanle eta erakunde guztietan du eragina, ez soilik eskualdeko biztanleengan. Pirinioak bizirik mantentzearen alde lan egiteak lurralde-elkartasuneko eta giza elkartasuneko bultzada bati erantzuteaz gainera, Foru Komunitateari ekarpen handiak egiten dizkion lurralde bat bizirik mantentzeko interesari zor zaio: paisaia, natur baliabideak eta ingurumenekoak, naturaren espazioak, aisiarako eta turismorako espazioak, ondare natural eta kul-

turala, nekazaritza- eta abeltzaintza-produktuak, baso-baliabideak... Horrek guztiak, horrenbestez, erkidego osorako interes orokorreko gaia bilakatu du hau.

– Aitzitik, Pirinioetan biztanle eta bizi-indar gehiago galtzeak berekin ekarriko luke aipatu berri ditugun balio horiek guztiak galtzea, Nafarroako azaleraren % 10 inguru hartzen duen lurralde batean; horretaz gainera, litekeena da horrek eskatzea, etorkizun hurbil batean, jarduketa handiak egin behar izatea azalera horren guztiaren paisaiaren eta lurraldearen narriatze erabatekoa saihesteko, eta hori, zalantzarik gabe, egiten askoz zailagoa izanen litzateke bertan biztanleria aktiborik ez badago.

Hartu beharreko politiken eta neurrien abiapuntua eta izaera

– Ez da neurri edo jarduketa “entzutetsu” bakar bat egonen, Pirinioetako egoera birbideratu eta eskualdearen iraupena, bizi-indarra eta garapena bermatuko duena, eta, aldi berean, egoera egun batetik bestera goitik behera aldatuko duena. Aldaketa etorriko da, etortzekotan, eskala desberdinean neurriak aplikatuzetik –neurri handiak, ertainak eta tamaina handiagokoak, zeharkakoak, ahal dela koherentzia baten eta osoko estrategia baten barruan–. Neurri horien bultzatzaile eta jarduleak era guztietako eragileak izanen dira, eta neurri horiei esker aldaketak etorriko dira bertako biztanleen, enpresen, ekintzaileen, toki entitateen, elkarteen eta abarrekoen bizitza eta jarduerak erraztu eta lagunduko dituztenak.

– Ekialdeko Pirinioek osotasunezko ikuspegi bat behar dute, orohartzailea, sektore anitzekoa, koordinatua, erakundeen maila askotako ekintza bermatuko duena, denboran sostengatutako neurri errealisten finantzaketa jasoko duena, ahaleginak ahal den guztian aprobeztatuko dituenak, eskualderako politika bati zentzua emanen diona, ahalegin bikoitzak saihestuko dituenak eta, koordinazioan eta ikuspegi orokorrean oinarrituta, ekimen guztiei etekin handiagoa aterako diona eta baliabide guztien erabilera ahal den guztian probestuko duena.

– Ponentziaren bilkuretan zehar egiaztatu dugu ezen, hain zuzen ere, badaudela gaur egun aplikatzen ari diren politika ugari, jarduketa-ildo ugari, ekimen eta neurri ugari, tokiko nahiz erkidegoko hainbat esparru eta organotatik heldutakoak. Hau da, ez dugu hutsetik abiatu behar; lehendik ere badaude jarduketa batzuk, nola baita 2007-2010 urteetarako Pirinioetako plana, bai eta eskualdeari buruzko diagnostiko eta adierazleak ere, bai eta Pirinioen garapena lagun dezaketen

beste jarduketa ugari ere, zeinak bat baitatoz eskualdetik bertatik egin diren eskakizun eta proposamenekin. Halaber, hainbat ideia edo ekimen badaude, balizko ekintza gisa erredaktatuta edo jasota daudenak baina gauzatu ez direnak eta,aldi berean, Pirinioetarako beharrezkotzat eta lehentasunezkotzat hartu beharko lirakeenak, aktibatu eta aplikatu daitezken. Eta, zalantzarik gabe, beste asko egonen dira ia hutsetik abiatuta diseinatu beharko direnak.

– Bistan da edozein foru araudik lurralde-mailan izan dezakeen eraginari buruz gogoeta egin beharra dagoela. Eskualde bakoitzaren berezitasunei egokitzeko behar bezain malguak diren arau-tresnak, oro har, diseinatzea komeni dela onartu behar da.

Konpromiso politikoa eta lankidetzaren aldean

– Balizko arau-aldaketek eta lege, dekretu edo bestelako lege xedapen batzuen egokitzeek gainera, Pirinioetako egoeraren leheneratzeak eskatzen du Nafarroako erakundeek –funtsean, Nafarroako Parlamentuak eta Nafarroako Gobernuak– jarrera eta konpromiso argiak idan ditzatela, arazo hau beren agenda politikoan sar dezatela, inbertsio ekonomikoa eta bitartekoen eta baliabideen inbertsioa egin dezatela, eta tresna operatibo eta antolamendukoak jar daitezela bermatze aldera beharizan horri modu sistematiko, planifikatu eta ebaluatuan erantzunen zaila.

– Pirinioetako egoera larriaren konponbidea eta leheneratzea etorriko da, nolana ere, eskualdearekin lotura duten eragile guztien –instituzionalen zein sozialen– arteko lankidetzatik, ulermenetik, komunikaziotik eta koordinaziotik.

Ondorio berariazkoak

– EBk erregionen eta kohesio-politikarako aurrekontuak (2021-2027 aldian) jarraitzen du birbanatzeko irizpide nagusi gisa jasotzen pertsona bakoitzeko BPGa. Europako funts ekonomiko solidario nagusirako kontuan hartuko diren beste faktore batzuk honako hauek izanen dira: gazteen langabezia, hezkuntza-maila eskasa, klima-aldaketa eta migranteen harrera eta integrazioa.

Europako hegoaldeko eremu zabaletan hiri-eremuen eta herri-eremuen artean dagoen desoreka jasoko duten faktoreak sartu behar dira, geografikoki mugakideak diren eremuen arteko kontraste handiak konpentsatze aldera. Izan ere, pertsona bakoitzeko BPGak ez du jasotzen Ekialdeko Pirinioak bezalako eremuen konplexutasuna. Are gehiago, diskriminazio positiboa egiten duten politika ekonomiko edo/eta fiskalak ezarri behar

dira, askotan Estatuaren balizko laguntza gisa ikus daitezkeenak (EBFT-Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. artikulua).

– Ustiatzeari edo eremu-planei buruzko lurralde kontratuen figura, Landa Ingurunearen Garapenerari buruzko 45/2007 Legean jasotakoa, ez da behar beste garatu. Analisi errealista bat egin beharra dago, hartan baloratzeko lege horrek izan duen bilakaera, eta hura finantzaketaren bidez berraktibatze saiakerak egin behar dira, gizarte-eta enpresa-erakunde eta erakunde ekologista eta sindikal askok eskatzen duten bezala.

Sektore anitzeko ikuspegi argi bat ematen du, gobernantza gorago jartzeko elementuak biltzen ditu eta zenbait lanabes jasotzen ditu ekintza publiko koordinaturako eta lana-eremuen plangintza osokoagoa lortzeko. Hala eta guztiz ere, hura Frantzia sartu zenean ez zuen espero zen arrakasta izan. Litekeena da NPEk (2021-2027) sartu nahi dituen orientabide berriekin, tresna horrek birbaloratzea nekazaritza- eta landa-politikan edo klima-aldaketaren aurkako borrokaren arloko politikan orientazio berriak aplikatzeko bide gisa (“ingurumen-zerbitzuengatik ordainketa” gisa ulertzeari dagokionez).

– Zerbitzuen eskaintza Pirinioetako biztanleriaren irauenerako gakoetako bat da, bai eta bizilagun berrien balizko erakartzeko ere. Ezin da helburu gisa hartu hiriburuko zerbitzu-zuzkidura bera edukitzea, eta horrelaxe adierazi izan dute Pirinioetako solaskideek beraiek, baina gutxieneko atalase bat eduki beharko da, bai eskualdea biziberritzeko estrategia-kontu batengatik, bai eskualdeko biztanleei dagozkien eskubideen kontuarengatik ere, zuzenbide osoz Nafarroako herritarrak baitira, oinarritzko zerbitzu publikoak eskuratzeari begira beren betebeharrak besteek bezala betetzen dituztenak.

– Pirinioek kultura- eta hizkuntza-ondare aberatsa dute, Nafarroako kultura- eta hizkuntza-ondarearen zati garrantzitsua, eta horrek ere babes- eta sustapen-politika bat behar du. Pirinioetako bizitzaren zati bat da, bertako nortasunaren zati bat, eta bertako biztanleak beren lurraldearekin lotzen duen motibazioaren zati bat. Bere berezitasun, eduki eta ezaugarri propioak dauzka Nafarroako beste toki batzuetako kultura-ondarearen aldean, eta hura zaintzeak behar den ahalegin guztia merezi du.

– Pirinioek gutxieneko azpiegitura batzuk behar dituzte, garapen jasangarri bat bideragarri egiten dutenak, eta horietako bat, funtsezkoa, banda zabalarena da. Ponentziaren saioetan

zehir, bai eta dokumentuak idazterakoan ere, etengabe agertu da banda zabala ezartzearen beharra, are urgentzia ere. Esparru eta beharrian guztietan du eragina horrek, eta zerbitzuak hobetzeko eta jarduerak sustatzeko aukera baten gisara ikusten da; eta askotan, hobekuntzarako aukera bat ez ezik, ezinbesteko baldintza bat ere bada. Laburbilduz, zeharkako gai bat da, eskualdearen garapenerako lehentasunezkoa dena.

– Hainbat ikuspegi eta pertzepzio daude, solaskidea nor den, araudiaren aplikazioan gertatzen den malgutasun-mailari buruz; esate baterako, elikagaien segurtasunaren arloan eta nekazaritza-edo abeltzaintza-produktuak eraldatzeko jardueretan. Halaber, beste esparru batzuetan; esate baterako laguntzak jasotzeko edo hainbat jarduera egiteko dauden aukeren esparruan. Ikuspegi edo pertzepzio desberdin horiek hainbat arrazoi izan ditzakete: litekeena da eragileren bat egiazko praktika oker ebaluatzen egotearen eta horrek ikuspegi akastuna eragitearen ondorioa izatea; edo litekeena da komunikazio- eta informazio-faltaren eragina izatea; eta, halaber, litekeena da egiazki praktika desberdina egotea Europako beste lurralde batzuekin, geografikoki hurbil daudenekin, alderatuta –hain zuzen ere eskualderako erreferentzia diren lurraldeak dira horiek–. Nolanahi ere den, komunikazioa, informazioa eta alderaketa lagungarri gerta daitezke arazoa edo zailtasuna detektatzeko, eta zailtasunik egotekotan, konponbide egokia bilatzen laguntzeko.

– Nahiz eta Pirinioetan turismoa, zerbitzuak, industria eta gainerakoak gara daitezkeen eta berez ere garatzen ari diren, nekazaritza-, abeltzaintza eta basozaintza-jarduera oinarritzakoa eta funtsezkoa da eskualdearen garapenerako eta bizitasunerako, bai eta aspalditik kontserbatu diren irudia eta paisaia mantentzeko ere. Jarduera horiek gabe, Pirinioek orain arte izan direnaz beste zerbait bilakatzeko arriskua dute.

VII. GOMENDIOAK

Konpromiso politikoa

– Nafarroako Parlamentuak eta Nafarroako Gobernuak deklarazio formal bat egin dezatela, Ekialdeko Pirinioetako egoera sozioekonomikoa aztertzeke ponentzia parlamentarioaren konklusioak eta gomendioak aitortzeko, irizpen honek proposatutakoaren ildoan lan egiteko konpromisoa hartuz.

Epe laburreko neurrien beharra

– Eduki estrategikoagoa duten eta denbora luzeagoa hartuko duten neurriak hartzeko beharra alde batera utzita, Ponentziaren esparruan, Nafarroako

Gobernuko departamentuekin lankidetzan, urgenteagoak diren hainbat neurri ezartzea, epe laburrean gauza daitezkeenak. Planteatu diren neurri eta ekimen ugarien artetik –dokumentu honetan eranskin gisa sartu dira haiek aztertu eta gero, egokitzen jotzen denean, betearaz daitezkeen– honako gomendio hauek hautatu dira, bilkuretan zehar eman zaien lehentasunarengatik eta Pirinioetako garapenerako funtsezko garrantzia duten gaietan eragiten dutelako:

Etxebizitza:

.- Etxebizitzari buruzko Legean, bai eta etxebizitzan eragina duen gainerako araudian ere, kontuan har daitezela Pirinioetako arazoak. Halaber, baliabide tekniko eta logistikoekin laguntza ematea “Etxebizitza poltsa” eta “Alokairu poltsa” sortzeko eta zabaltzeko eskualdean antolatzen diren ekimenei, toki entitateen eta eskualdeko eragileekin laguntzarekin.

Hezkuntza:

.- Bermatzea hezkuntza eskaintzari bere osotasunean euts dakiola; Hezkuntzan aplikatzen diren ratioen balizko malgutzea aztertzea; haiek egokitzeta oro har eskualdearen landa-izaera eta egoera berariazkoa kontuan hartuz; eta 0-3 zikloaren eskaintzari dagokionez, aztertzea aukerarik ote dagoen Hezkuntza Departamentuak bere gain har dezan gutxienez iristeko falta den familien zatia, eta toki entitateek ere beren zatia osa dezaten, ikasleen gutxienezko kopurura iritsiko balira bezala.

Osasuna:

.- Egungo osasun arretaren egitura bermatzea eta, zehatzago, bertaratzekoak ez diren kontsulten prozedura sustatzea, ahal den neurrian, beharrezkoak ez diren joan-etorriak saihesteko. Horretaz gainera, lehentasuna ematea telemedikuntzaren eta telelaguntzaren ezarpenari jarduketa bereziko eremuetan.

Garraioa:

.- Pirinioetan kalitatezko garraioaren zerbitzu publikoa bermatzea eta, zehazkiago, urtebeteko epean, gauzatzen edo diseinatzen ari diren garraio eta mugikortasun gaiei buruzko planak kontuan hartuz (Errepide bitarteko garraio publikoaren osoko plana, besteak beste) azterlan bat egitea, zeinean eskualdeko garraioaren finantzaketa aztertu eta finantzatzeko baita; zerbitzu publiko guztien ordutegi-plangintza orokorra egiten da, hainbat kolektiboren beharrianak kontuan hartuta: derrigorrezkoaren ondorengo ikasketetan ari diren gazteak, eskualdeko osasun sistemaren zerbitzuetara edo gizarte zerbitzuetarako doazen pertsonak...

Arau-esparrua

– X. legegintzaldia hasi eta gehienez ere sei hilabeteko epean, “biztanleria galtzen ari diren lurraldeei buruzko foru lege” bat onestea, deitura horrekin berarekin edo asmo hori bera bildu beharko lukeen beste batekin. Foru lege horrek oso kontuan hartu beharko ditu kontzeptuen definizioetan Ekialdeko Pirinioetako arazoak eta berriazko ezaugarriak, eta tokia eman beharko die.

– Tokiko maparen erreforma-prozesuan sartzea, bereziki harekin batera joanen den finantzaketa-legean, ponentzia honetatik ateratzen diren irizpide eta jarraibideak, deszentralizazioari buruzkoak eta ezaugarri horiek dituzten eremu-eko diskriminazio positibokoak.

– Sei hilabeteko epean, Pirinioetan eragina duen eta bertako garapenerako eta bizitasunerako garrantzi aipagarria izan dezakeen araudiari buruzko azterlan bat eginen da, eta azterlan horrek garapen horretan lagun dezaketen balizko aldaketak identifikatuko ditu. Lan hori egin beharko litzateke biztanleria galtzen ari diren lurraldeei buruzko legea egiten den modu berean; hau da, Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Parlamentuaren lankidetzarekin, berriazko lan-mahai bat sortuz eta Ekialdeko Pirinioetako eragile sozial eta instituzionalen parte-hartzearekin.

Egitura organikoak eta jarraipena

– Gomendatzen da Nafarroako Gobernuaren egitura sei hilabeteko epean unitate organiko bat sortzea, behar adina langile eta baliabide izanen dituen eta Parlamentuarekin koordinatuta egonen dena, Foru Komunitatean sortzen joaten den araudia berrikusi eta haren jarraipena egiteko; horren xedea izanen da aurreikustea zein kasutan izanen lukeen zentzua eta beharko litzatekeen berriaz eta zehazki Pirinioei buruzko edo, oro har, biztanleria galtzen ari diren eremu edo herriei buruzko irizpide edo aipamenak jasotzea. Eskualdean “5 minutu Nafarroako Ekialdeko Pirinioetarako” deituraren pean egindako eskaeren erantzun operatiboa izanen litzateke, nolabait ere. Unitate edo egitura organiko hori bera arduratuko da, halaber, beste erregio edo/eta herrialdeetan landa-ingurune-ko biztanleria-galera dela-eta hartutako ikuspegiak aztertzeaz, analizatze aldera ea hartutako neurri horiek eraginkorrak izan diren eta Nafarroako Ekialdeko Pirinioetara ekar daitezkeen.

– Sei hilabeteko epean, Gobernuan unitate organiko bat sortzea, eskualdeko solaskide sozial eta instituzionalekin zuzenean hitz egin ahal izateko; horren xedea izanen da gaiak aztertzea eta lantzea ponentzia honetan planteatzen ari den osoko perspektibatik.

– Urtero, Nafarroako Gobernuak agerraldia egitea eta informazioa ematea ponentzia honek egindako gomendioen garapenari eta aplikazioari buruz, eta Nafarroako Parlamentuko Landa Garapeneko Batzordearen bidez horren guztiaren jarraipen bat egitea.

Lurralde-kohesioa

– Lurralde bakoitzaren –esate baterako Ekialdeko Pirinioen– berezitasunak biltzen dituzten politika publikoak egiteko beharra egiaztatzea, lurralde-antolamenduaren printzipioak betetz, hartara garapen jasangarria eta hiri-munduaren eta landa-munduaren arteko oreka duen garapena lortzeko. Garapen Jasangarriaren Helburuak 2030 edo Nafarroako Lurralde Estrategia bezalako dokumentuek jasotzen duten bezala.

– Nafarroako Lurralde Estrategia behar bezala berrikusi edo/eta gaurkotzea, bilatzen den oreka eta lurraldearen eta gizartearen kohesioa lortzeko egoki edo eraginkor gertatu ez den guztian. Azken batean, ahaleginak egitea Estrategia bideratzeko sortu zeneko helburua lortzera: Nafarroarentzat lurralde-eredu bat eraikitzea garapen jasangarria oinarri hartuta.

Europako esparrua

– Ahaleginak egitea Europako foroetan arau-aldaketak sartzeko, horien bidez Europar Batasuna osatzen duten hainbat erregiotan dauden lurralde-baldintzei egokitzeko behar den malgutasuna lortze aldera. Esate baterako, barne-merkatuarekin (EBFTren 107.2 artikulua) bateragarritzat jotzea biztanleriaren galerak edo zahartzeak ukitutako erregio edo eskualde jakin batzuetako ekonomia aldezteko xedez emandako laguntzak. Edo barne-merkatuarekin bateragarriak diren gisa guztietako laguntzak arakatzea, lehia distorsionatu gabe.

– Europako Parlamentura eramatea eta bertan agerian jartzea Pirinioetako arazoak, Eskualde Garapenerako Europako Funtsak garraiorako, telekomunikazioetarako eta zerbitzu publikoetarako azpiegituren sorrerarako pizgarriak eman ahal izan.

– Nafarroako estrategia bat ezartzea, zuzenean eta Europar Batasunaren tresnekin koordinatua, hainbat sektore politikotan; honako hauetan, besteak beste: nekazaritzako politika komuna, Europako egitura- eta inbertsio-funtsak, Europako lurraldeen arteko lankidetzeta eta Inbertsio Estrategikoetarako Europako Funtsa.

Pirinioetako Plan Estrategikoa

– Pirinioetako Plan Estrategikoa egin eta ezartzea. Plan hori idazteko enkargua egina zaio

Nasuvinsari, eta 2018. urtearen amaieran burututa egotea aurreikusi da. Plan horrek kontuan hartu beharko litzuzke ponentzia honetan jasotako konklusio eta gomendioak, bai eta haren lanketan zehar jasotako dokumentuak ere.

– Lursarea egiten ari den Pirinioetarako Plan Estrategikoari osoko ikuspegi bat ematea, horren barne jasoz kultura-elementuak, elementu sanitarioak eta abar. Aztertutako gainerakoekin artikulatu beharko dira.

Politiken diseinurako irizpide orokor eta zeharkakoak

– Gomendatzen da Nafarroako Gobernuak eta haren departamentuek, beren politiken plangintza egiteko, lantzeko eta ezartzeko garaian, gidoi eta lanabes praktiko gisa kontuan har dezatela eta erabil dezatela honako ponentzia hau, bertan azaldutako konklusioak eta gomendioak betez, bai eta askotariko dokumentuetan jasotako proposamenak aztertuz eta egoki baloratuz ere, haien bideragarritasuna zorrotz ebaluatzeko eta haien potentziala ahal den probetxu guztia ateratzeko.

– Nafarroako Gobernuak departamentuetan osotasuneko ikuspegi batekin lan egitea, sustatze aldera hainbat eremutako –nekazaritza, abeltzaintza, ostalaritza, turismoa, merkataritza edo elikagaien industria, kasu– ekimenak elkarrekin erlazioaturik egon daitezela eta elkar elikatu eta bultzatzea. Irizpide hori dokumentu batean jasotzea, eta bertan, halaber, jarraibide batzuk eta plangintza zehatz bat jasotzea, haren betetzea eta garapena segurtatze aldera.

– Zeharkako eta lehentasunezko politika baten gisara ezartzea banda zabalaren iristea (zuntz optikoa edo irrati bidezko garraio-sarea). Nafarroako Gobernuak, banda zabalaren plan zuzendariaren barruan, lehentasuna emanen dio garapen horri, eta, aldi berean, berrmatuko du zuntz optikoa, bost urteko epean, udalerrri eta industrialde guztietara iritsiko dela, udalei kosturik eragin gabe.

– Lurraldearen eta baliabide naturalen babesa bateragarri egitea, jasangarritasunaren eta ingurumenaren zainketaren ikuspuntutik, babes-irizpide horiekin bateragarri gerta daitezkeen jarduera sozioekonomikoarekin.

– Jarduera batzuen (nekazaritza, abeltzaintza, eraldaketa, ostalaritza, etxebizitza, turismoa, enpresen sorrera, basozaintza-lanak...) garapenerako eskakizun burokratikoak buruzko azterlan xehea egitea, hainbat eremu edo alderdiri dagokienez (fiskalitatea, baimenak, erregistroak...), horren bidez izapide burokratikoak balizko soiltzeari eta arintzeari ekiteko, betiere segurtasunerako eta eraginkortasunerako beharrezkoak diren gutxienezko estandarrak errespetatuz.

– Foru Administrazioak eta toki entitateek aztertzea eta aplikatzea araudi indardunaren barruan ezar daitezkeen pizgarriak, hainbat arlotako profesionalek edo Nafarroako Gobernuak departamentuek lurraldean geratzearen eta ezarztearen alde egin dezaten.

– Kontratu Publikoak buruzko 2/2018 Foru Lege berriak eremuaren garapenerako eskaintzen dituen aukerak eta irizpideak garatzea erosketa publiko arduratsua edo kontratuak sorten bidezko lizitazioa bezalako tresnen bitartez; betiere, Administrazioak, besteak beste, “erosketa berdea” sustatuko du, bai eta kontsumo ekologikoa eta garaian garaikoa ere.

– Elikagaien segurtasunari eta higieneari buruzko araudiaren aplikazio malguari dagokionez errealitateak hurbilen dagoen ikuspuntua zein den alde batera utzita, gomendatzen da ezen, egiazki, eskatzekoak diren segurtasun- eta higie-estandarrei eutsiz eta haiek bermatuz, araudi horren aplikazio malgua egin dadila, estatu frantseseko lurraldeetan egiten den bezala, edo are egokitzapen bat ere, beharrezkotzat edo komenigarritzat joz gero. Baldin eta aplikazio malgu bat egiten ari bada, gomendatzen da balizko ukitu edo interesdun guztientzako komunikazio- eta informazio-lan bat egitea, haien jardueren garapenerako konfiantza eta lasaitasun giro bat sortzeko, hartara ekimen eta jarduera berriak sustatzen laguntzeko. Nolanahi ere, gomendatzen da ahal den epe laburrean neurriak ezartzea –esate baterako, jardunaldi berezituak nekazaritzaren arloko fiskalitateari buruz edo araudiaren malgutetasunari buruz, edo bestelako komunikazio-bide batzuk–, gai horiei buruz dauden ikusmolde edo jokabideak aldatzeko.

VIII. DOKUMENTAZIOA

I-IV eranskinak

Ekialdeko Pirinioen egoera aztertzeko Ponentzia sortu eta garatzeari buruzko dokumentazioa eta ponentzia horren arauak.

.- I. eranskina: Ponentzia sortzeko eskaera, talde parlamentario guztiek sinatua.

.- II. eranskina: Ponentziaren barne-funtzionamendurako arauak.

.- III. eranskina: Ponentziak egindako bilkurak.

.- IV. eranskina: Parlamentarioak bilkuretara joateari buruzko txostena.

V-XXVIII eranskinak

Pirinioetako ordezkari eta solaskideek idatzi eta aurkeztutako dokumentuak.

- V. eranskina: Ustaizeko jardunaldiaren akta. 2017ko martxoaren 29an
- VI. eranskina: Ustaizeko jardunaldiaren erakusketak.
- VII. eranskina: Lankidetzan jarduteko proposamena.
- VIII. eranskina: Egoera orokorra eta hainbat esparrutakoa.
- IX. eranskina: Diagnostikoa egiteko hainbat elementu.
- X. eranskina: Biztanle-galera.
- XI. eranskina: Abeltzaintza eta nekazaritza.
- XII. eranskina: Erronkariko artzain baten gogoetak.
- XIII. eranskina: Ingurumena eta basozaintzaren eremua.
- XIV. eranskina: Landa arloko eta industria arloko enplegua, prestakuntza eta garapena.
- XV. eranskina: Etxebizitza, azpiegiturak eta garraioa.
- XVI. eranskina: Banda zabala Erronkarin eta Zaraitzun.
- XVII. eranskina: Turismoa eta zerbitzuak.
- XVIII. eranskina: Gizarte zerbitzuak.
- XIX. eranskina: 0-3 zikloa Pirinioetan.
- XX. eranskina: Hezkuntzari buruzko datuak eta proposamenak.
- XXI. eranskina: Hezkuntzaren egungo egoera.
- XXII. eranskina: Arkeologia.
- XXIII. eranskina: Kultura.
- XXIV. eranskina: Nafarroako Pirinioen kultura-ondarea.
- XXV. eranskina: Euskara.
- XXVI. eranskina: Emakumeen proposamena, Pirinioetan berdintasuna egon dadin.
- XXVII. eranskina: Pirinioetako farmaziak.
- XXVIII. eranskina: Osasunaren arloa.
- XXIX-L eranskinak**
- Eskakizunei erantzuteko dokumentuak, Nafarroako Gobernuarenak.
 - Eskubide Sozialetako Departamentua:
 - XXIX. eranskina: Nafarroako Mendekotasun Agentzia.
 - XXX. eranskina: Gizarte zerbitzuak.
 - XXXI. eranskina: Etxebizitzari buruzko proposamenak.
 - XXXII. eranskina: Nafar Lansarea.
 - Hezkuntza Departamentua.
 - XXXIII. eranskina: Pirinioetako 0-3 zikloari buruzko txostena.
 - XXXIV. eranskina: Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusiaren txostena.
 - XXXV. eranskina: Pirinioetako ikastetxeei buruzko ikuskatze-txostena.
 - XXXVI. eranskina: Landa eskolak hobetzea eta horri buruzko proposamenak hezkuntza itunean.
 - XXXVII. eranskina: Hezkuntzako Zuzendaritza Nagusiak Pirinioetako proposamenei emandako erantzuna.
 - Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentua:
 - XXXVIII. eranskina: Ingurune Naturala eta Basoen Kudeaketa.
 - XXXIX. eranskina: Nekazaritza-gaiak.
 - XL. eranskina: Ingurumenari eta Basozaintzaren Kudeaketari buruzko datu orokorrak, laguntzak eta suaren erabilera.
 - XLI. eranskina: Pirinioetako naturaren interpretazio zentroen jarduketak.
 - XLII. eranskina: 2016-2017ko hainbat lan eta proiekturen ekarpen ekonomikoa.
 - XLIII. eranskina: Europako proiektuak.
 - Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentua:
 - XLIV. eranskina: Pirinioetako fiskalitatea.
 - Garapen Ekonomikorako Departamentua:
 - XLV. eranskina: Gogoeta orokorra, erantzunak eta proposamenak.
 - Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentua:
 - XLVI. eranskina: Nafarroako Berdintasuneko Institutuak Pirinioetan bultzatutako edo lagundutako neurri eta proiektuak.
 - XLVII. eranskina: Pirinioak eta euskara. Proposatutako neurrien lanketa.
 - Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentua:
 - XLVIII. eranskina: Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuk Pirinioetako proposamenei emandako erantzunak eta egindako ekarpenak.

– Osasun Departamentua:

.- XLIX. eranskina: Osasun Departamentuaren ikuspegia eta erantzunak.

.- Nasuvinsa – Lursarea

.- L. eranskina: Nafarroako Pirinioetarako bul-tzada berria.

LI. eranskina

Pirinioetatik egindako proposamen eta eska-rien zerrenda eta Nafarroako Gobernuak emanda-ko erantzunak, gainerako eranskinetatik aterata-koak, testu bakar batean eta departamentuen arabera antolatuturik.

LII-LIV eranskinak

Ponentziaren xedearekin lotutako dokumenta-zioa.

.- LII. eranskina: Nafarroako Pirinioetako eskualdeko azterlan sozioekonomikoa eta gazteen egoerari buruzkoa.

.- LIII. eranskina: Nafarroa etorkizuneko Piri-nioei begira.

.- LIV. eranskina: Txantxalaren gogoetak-Burgi, 2017.

2018ko azaroaren 8ko Osoko Bilkurak one-tsitako erabakia, Ekialdeko Pirinioetako egoera sozioekonomikoa aztertze-ko ponentziaren txostena dela-eta

1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Nafarroako Ekialdeko Pirinioetako egoera azter-

tzeko ponentziaren analisiarekin, zeinetan deskribatzen baita lurralde horren egoera. Berezi-ki, atal batzuekin: ibar eta udalerrri horien egoera-ren larritasuna eta berezitasuna jasotzen dutenak eta Nafarroako erakunde-aldetik ikuspegi eta politika berezien beharra islatzen dutenak.

2. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Nafarroako Ekialdeko Pirinioetako egoera azter-tzeko ponentziak prestatutako irizpenak biltzen dituen konklusioekin, Parlamentuak eskualdeko eragile sozial eta instituzionalekin partekatutako analisiaren emaitza gisa.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kontuan har eta prakti-kan jar ditzan ponentziaren irizpenean biltzen eta adierazten diren gomendioak, eta, halaber, azter, kontuan har eta balora ditzan, arlo guztietan egi-ten dituen politiken jardunean, eragile ezberdinek, sozialek zein instituzionalek, prestatu eta helarazi-tako dokumentuak, txostenak eta proposamenak.

4. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa har-tzen du, Gobernuaren jarduna kontrolatzeko duen eginkizunaren esparruan, arreta emateko eta jarraipena egiteko Nafarroako Gobernuak ponent-ziarenean biltzen diren gomendioez egiten duen egikaritzeari eta praktikan jartzeari.

5. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa har-tzen du bere legegintza-eginkizuna ukitzen duten ponentzia-irizpeneko gomendioak kontuan hartu eta praktikan jartzeko, bai eta legegintza-zereginean kontuan hartzeko ere Ekialdeko Piri-nioen errealitate espezifikoa.

Deialdia, oposizio bidez Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoretzako teknikari izateko bost lanpostu huts bete daitezen (horietako baterako euskaraz jakin behar da).

Onartu eta baztertu diren izangaien behin betiko zerrenda

Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoretzako teknikari izateko bost lanpostu huts –horietako baterako euskaraz jakin behar da– oposizio bidez betetzeko deialdiko 4. oinarriko 3. apartatuan ezarritakoaren arabera –deialdia lehendakariaren 2018ko abuztuaren 21eko ebaz-penaren bidez onetsi zen–, behin erreklamazioak aurkezteko epea iraganik eta horiek ebatzita, bidezkoa da deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin betiko zerrenda onetsi eta hura Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean

nahiz Nafarroako Kontuen Ganberako iragarkien oholean eta web orrian argitaratzea.

Horrenbestez, lehendakaritza honek ERABAKI DU:

Lehena.- Nafarroako Kontuen Ganberaren auditoretzako teknikari izateko bost lanpostu huts (horietako baterako euskaraz jakin behar da) opo-sizio bidez betetzeko deialdiko onartu eta bazter-tuen behin betiko zerrenda onestea. Hona zerren-da:

Txanda librea:

a) Onartuak:

Aira Zunzunegui, Oscar
 Aldasoro Errea, Eñaut
 Almirantearena Larrañeta, M^a Lydia
 Alvarez Paez, Abel
 Artieda Cadena, Raquel
 Ascunce Echavarren, Iñigo
 Asio Goicoechea, Fabián
 Ayensa Saldias, Edurne
 Ayesta Zardoya, Edurne
 Azcarate Auzqui, Beatriz
 Baigorri Vázquez, Fco. Javier
 Caños Hernández, Daniel
 Caso Echechipia, Javier
 Del Río Alcalde, Leticia
 Echarri Laurenz, Zuriñe
 Echarte Zambrano, Maite
 Erbiti Irisarri, Leire
 Ezcurra Fernández, Pablo
 Fernández Estanga, Nerea
 Garbayo Aragón, M^a Teresa
 García Azcona, Patxi
 García Cascante, M^a Esperanza
 García Logroño, José Javier
 García Sánchez, Isabel
 Garralda Iriarte, Aitor
 Garro Flamarique, Alberto Juan
 Giral Anaya, Leire
 Gómez Irigaray, David
 Ibarrola Labiano, Marta
 Izu Iriarte, Paula
 Jurío Izurriaga, Andoni
 Landa Villabona, Aitor
 Landivar Roque, Irantzu
 Larequi Fontaneda, Helena

Leache Arrese, Ana
 Marco Álvarez, Yolanda
 Martínez Anocibar, Lorea
 Millares Senosiain, Laura
 Múgica Alsua, Bakartxo
 Ondarra Erdocia, Rosario
 Pernaut Villanueva, Idoia
 Pinillos Salvador, M^a Teresa
 Ripodas Chocarro, Fermin
 Ruiz Reinaldos, Ana
 Sarasa Amatriain, Alfredo
 Sola Núñez, Miryam
 Soto Ortigosa, Iranzu
 Teilleri Vicondoa, Silvia
 Tejedor Zozaya, Mateo
 Ugarte Usón, María
 Urtasun Díaz, Rosana
 Villarroya Ochandorena, Naroa
 Vitas Elizari, M^a Victoria

b) Baztertuak:

Inor ere ez.

Igoera txanda:

Inor ere ez.

Bigarrena.- Xedatzea oposizioaren ariketak bukatu ondoren eginen dela euskararen ezagutza nahikorik frogatzeko proba, euskararen lanpostura aurkezte aldera –deialdiaren 2.1 onarriko g) letran aurreikusitakoa–, oposizioa gainditu eta aipatu lanpostu horretara aurkeztu diren izangaien artean.

Hirugarrena.- Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren iragarkien oholean zein web orrian argitara dadin xedatzea.

Iruñean, 2018ko azaroaren 8an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

1/2018 Foru Lege Dekretua, urriaren 24koa, zeinaren bidez onesten baitira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen arloko neurri batzuk.

OSOKO BILKURAK BALIOZKOTUA

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko azaroaren 8an egindako Osoko Bilkuran, baliozkotu zuen 1/2018 Foru Lege Dekretua, urriaren 24koa, zeinaren bidez onesten baitira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen arloko neurri batzuk. Foru lege dekretu hori 2018ko urriaren 30eko 210. Nafarroako Aldizkari Ofizialean

eta 2018ko azaroaren 2ko 131. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1. artikuluan ezarritakoa betez, erabaki horiek argitara daitezen agintzen dut.

Iruñean, 2018ko azaroaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

